

HISTORIA ZINEMA ETA MUSIKAREN BIDEZ

- **Jakintza adarra:** Arteak eta Giza Zientziak
- **Campus:** Araba
- **Ikastegi antolatzailea:** Letren Fakultatea
- **Gradua/k:**
Historia
- **Garapen-lekua (helbidea):** Unibertsitateko Ibilbidea, 5. Vitoria-Gasteiz

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Harrera eta Historiako ikasketen azalpena

Bisita gidatua Fakultate eta Campusaren instalazioetara

Ekitaldi praktiko bat egitea: "Historia zinema eta musikaren bidez"

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

- Historiako ikasketen eduki orokorra.
- Historiako ikasketen irtenbide profesionalak.
- Bisita gidatua laborategietara eta Arabako Campuseko azpiegituretara (Liburutegia, ordenagailu-gela, etab.).

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

1. Ikasleei harrera egingo zaie Fakultateko areto nagusietako batean eta Historiako ikasketak aurkeztuko zaizkie (helburuak, ikasleen profila, gradua eskuratzen dutenen profila eta ikasketen egitura) eta EHUn Historia ikasteko arrazoiak: a) Ikasketa-planak prestatuta daude ikasleak hainbat ikasgaitan prestakuntza osoa jaso dezan; b) Historiako irakasleen berri ematea, haiek baitira ikasleak espezializa daitezen lan egiten dutenak; c) baliabide material bikainak (laborategiak, liburutegia, ordenagailu-gela) Fakultatean eta Campusean Ikasketa-planaren helburuak gauzatu ahal izateko; eta d) SICUE/SÉNECA hitzarmen bikainak eta bestelako hitzarmenak Europako eta Amerikako unibertsitateekin.

2. Bisita gidatua laborategietara (multimedia-laborategia, autoikaskuntza-laborategia), eta Arabako Campuseko azpiegiturretara (Liburutegia, ordenagailu-gelak eta abar).
3. Praktika bat egitea laborategian: "Historia zinema eta musikaren bidez"

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordua	Plazak
2026-01-14	Elebiduna	Arratsaldez	16:00-18:30	60